

Erhi pitiña



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Hitzen erranahia

Kusia : Ikus ikasgelako haur bakoitzak kusirik baduenetz bere familian.

Zorria : Non atzemaiten da ? (irudiak eta argazkiak lagungarri).

Zorri hiltzailea : Zer da ? Erakuts keinua eginez.



Antzerki laburra

Eman haur bakoitzari erhi baten betekizuna (erhi pototsarena, pitiñarena...) eta joko tipi bat asma.

Marrazkia

Haur bakoitzak bere eskuaren ingurua orri batean marrazten du.

Erhiak izendatu arau, bakoitza kolore batez margotzen du eta gisa honetako solasaldiak egiten :

– *Nolakoa da erhi pitiña ?*

– *Erhi pitiña gorria da.*

Eskulana

Ikasleek, kartoizko eraztunak egin eta, margotu behar dituzte.

Erhien motrizitatea

Ukumiloa / ukabila egin esku batean eta erhiak banazka izendatzean, altxa.

nor-nork indikatiboan.
Ergatiboa.

- *Nik kusiarena egiten dut.*
- *Zuk Lanpetrarena egiten duzu.*

nor-nork indikatiboan.
-N inesiboa.

- Aditzaren aspektua.
- *Zein erhitan eman duzu eraztuna ?*
 - *Erhi pitiñan eman dut.*
 - *Nik erhi nagian emanen dut.*

nor-nork indikatiboan.

- *Altxa ezazu(e) erhi pototsa.*
- *Pototsa altxatu dut.*